



EUSKARAZ HEZI, BERDINTASUNEAN HAZI

Eusko Legebiltzarrak 2021eko urriaren 14an egindako osoko bilkuran egun indarrean dagoen Euskal Eskola Publikoari buruzko Legea aldatzeko prozedura abiatu zuen. Hurrengo hamarkadetako hezkuntza-sistemaren oinarriak ezarriko dituen legearen eztabaidari zein onarpenari ekin zaio.

Hezkuntza ardatza da egoera gutxituan dagoen edozein hizkuntzaren berreskurapen-prozesuan, belaunaldi berriek hizkuntza gutxituaren gaitasun egokia bermatzen duelako, bai eta gizarte-kohesioa zein bizikidetzatza bermatzeko giltzarria ere badelako.

Azken hamarkadotan hezkuntza-sistemak egin duen ekarpenari aitortza egin behar zaio: milaka eta milaka herritar euskaldundu dira. Halere, oraindik ezagutzaren unibertsalizaziotik urrun gaude. Datuek erakusten dute egungo ereduen sistemak arrakalak dituela. Badakigu zein den eredurik arrakastatsua eta zein den desagokiena, baina sistema bera berrikusi behar da. Gaur-gaurkoz ikasle askori ez baitzaio euskarazko gaitasun egokia eskuratzeko eskubidea bermatzen. Eta gogora dezagun, Euskararen Legean jasotzen den bezala, administrazioak gaitasun hori bermatzeko betebeharra duela, betetzen ari ez den betebeharra.

Horrek zuzenean eragiten die gizarte kohesioari, eta belaunaldi berrien aukeraber dintasunari. Izan ere, gizarte bizitzan zein garapen profesionalen aurrera egiteko oinarritzko baita hizkuntza-gaitasun egokia eskuratzea, euskaraz eroso aritzeko gaitasuna eskuratzea. Horregatik diogu, hori bermatzea ezinbestekoa dela gizarte kohesioan eta berdintasunean aurrera egiteko.

Berdintasun-printzipioari jarraiki, jatorriak, egoera sozioekonomikoak, egoera soziolinguistikoak edota bestelako irizpideek ezin dituzte baldintzatu ikasleek eskuratu beharreko gaitasunak -ez hizkuntzaren arloan, ez eta beste ezagutza arloetan ere-. Aitzitik, herritarren arteko bereizkeria handia litzateke jatorria, eremu soziolinguistikoa, egoera soziala edo bestelako irizpideren bat baliatzea ikasleei euskara-gaitasun egokia eskuratzea ukatzeko. Beste gai edo esparruetan bezala, kasu honetan ere berdintasuna bermatzeko oinarritzko bidea izan behar du gutxien duenari gehiago ematea. Horregatik diogu, oinarritzko euskara-gaitasuna belaunaldi berri guztiei bermatuko dien eredu berri orokortua ezartzea dela aukerarik justuena eta berdinzaleena.

Horregatik guztiarengatik, argi dugu orain dela aurrera egin eta ereduen sistema segregatzailetik, eredu orokortu inklusibora jauzia egiteko unea.

2021eko ekainaren 19an ehundik gora askotariko eragilek Batuz Aldatu adierazpena aurkeztu genuen Donostiako Kursaal jauregian. Batuz Aldatu adierazpenak etorkizuneko hizkuntza-politiken norabidetzeak zehaztu zituen. Horrela, politikek bi ardatzi jarraitu beharra adostu genuen eragileok: ezagutzaren unibertsalizazioa eta euskararen erabilera erorarako espazioak. Eta, horrekin batera hezkuntza-sistemak zein norabideri jarraitu beharko dion adostu genuen: *Euskaraz eroso arituko diren ikasleak hezteko [...] ikasteredu orokortua ezarri behar da. Inor bazterrean utziko ez duen ereduia izan beharko du, eta gutxien duenari gehiago emango diona.*

Horrexegatik,

Hemen bildu garen eragileok eskatzen dugu hezkuntza-hitzarmenean berariaz jaso dadila hurrengo legeak ereduaren sistema baztertua gaitzetsu eta ikasle guztiei euskara gaitasun egokia bermatuko dien eredu orokortua ezarriko dela.

Eta horretarako, konpromisoa hartzen dugu:

Eskaera hori gure egiteko, eta hezkuntza legearen inguruan parte hartzen dugun foroetan edota egiten ditugun harremanetan eskaera hori defendatzeko.





EUSKARAZ HEZI, BERDINTASUNEAN HAZI **Educar en euskara, crecer en igualdad**

El pleno del Parlamento Vasco celebrado el 14 de octubre de 2021 inició el procedimiento de modificación de la Ley de la Escuela Pública Vasca actualmente en vigor. Por tanto, se ha iniciado el debate y la aprobación de la ley que sentará las bases del sistema educativo de las próximas décadas.

La educación es el eje central en el proceso de recuperación de cualquier lengua en situación minorizada, porque las nuevas generaciones garantizan la competencia adecuada de la lengua minorizada y ello es clave para garantizar la cohesión social y la convivencia.

Hay que reconocer la aportación del sistema educativo en las últimas décadas: miles y miles de ciudadanas y ciudadanos se han euskaldunizado. Sin embargo, todavía estamos lejos de la universalización del conocimiento. Los datos muestran que el sistema de modelos actual presenta grietas. Sabemos cuál es el modelo más exitoso y cuál es el menos adecuado, pero hay que revisar el sistema de manera íntegra. Porque hoy por hoy a muchas alumnas y alumnos no se les garantiza el derecho a adquirir una competencia adecuada en euskara. Y recordemos que, tal y como se recoge en la Ley del Euskera, la administración tiene la obligación de garantizar esa capacidad, una obligación que se está incumpliendo.

Esto afecta directamente a la cohesión social y a la igualdad de oportunidades de las nuevas generaciones. De hecho, para avanzar en la vida social y en el desarrollo profesional es fundamental adquirir la competencia lingüística adecuada, la capacidad de expresarse cómodamente en euskara. Por eso decimos que garantizar ese conocimiento es imprescindible para avanzar en la cohesión social y la igualdad.

De acuerdo con el principio de igualdad, el origen, la situación socioeconómica, la situación sociolingüística u otros criterios no pueden condicionar las competencias que el alumnado debe adquirir, tanto en el ámbito lingüístico como en otras áreas de conocimiento. Por el contrario, sería una gran discriminación entre la ciudadanía el utilizar el origen, el ámbito sociolingüístico, la situación social o cualquier otro criterio para negar al alumnado la adquisición de una competencia lingüística adecuada. Al igual que en otras materias o ámbitos, en este caso la igualdad debe garantizar que se dé más a quien menos tiene. Por eso decimos que la opción más justa e igualitaria es la implantación de un nuevo modelo generalizado que garantice la competencia lingüística básica en euskara a todas las nuevas generaciones.

Por todo ello, tenemos claro que ahora es el momento de avanzar y dar el salto del sistema segregador de modelos actual a un modelo generalizado inclusivo.

El 19 de junio de 2021 más de un centenar de agentes presentamos la declaración Batuz Aldatu en el Palacio Kursaal de San Sebastián. La declaración Batuz Aldatu detalló las direcciones de las políticas lingüísticas del futuro. Así, los agentes acordamos que las políticas debían seguir dos ejes: la universalización del conocimiento y los espacios para el uso cómodo del euskera. Y, junto a ello, acordamos qué dirección debe seguir el sistema educativo: *para educar al alumnado que se exprese cómodamente en euskera hay que establecer un modelo de aprendizaje generalizado. [...] Tendrá que ser un modelo que no deje a nadie al margen y dé más a quien menos tiene.*

Por ello,

Los agentes aquí reunidos solicitamos que en el pacto educativo se recoja expresamente que la próxima ley superará el sistema excluyente de modelos lingüísticos, y se implantará un modelo generalizado que garantice la competencia adecuada del euskara a todo el alumnado.

Y para ello nos comprometemos a:

Hacer nuestra esa petición y defenderla en los foros en los que participamos y/o en las relaciones que mantenemos con respecto a la ley de educación.

